

Ludopatia: Bizitza honda lezakeen 'gaitza'

Sandiusterri azpiko ludopaten lokalean izan gara. Euren bizitzaz eta jokoa uzteko terapiaz hitz egin digute.



Zenbaten amets gaizto ote dira 'tramankulu' hauek? Hortarakoxe sortuak nonbait.

Ehundik gora dira jokorako grina dutenak Hernanin. Hogeiren bat Sandiusterripeko ludopaten lokalera sendatzera joaten dira (beste hoge kanpotik etortzen dira). "Ludopatia ez da bizioa, gaitza da". Argi utzi digute lokalean sartu orduko.

BIZIPEN GOGORRA

Ez du bere izena agertzerik nahi. Ez da denbora asko laguntza eske lokalera joan zena. Bere bizipenak kontatzeari ekin dio:

"15 urterekin hasi nintzen jokoa, eta 45 daramazkit. Diru asko galdu dut, pisua... Enpresari ere iruzur egin diot; jokorako, seme-alabei dirua lapurtzera iritsia naiz... Orain, baldintzapeko askatasunean nago, fiskalak kondena jeitsi zidalako".

Duela hamalau hilabete laguntza bila hurbildu zen. "Hamalau hilabete jokatu gabe egon eta gero, asteazkenean erori nintzen, baina, astakeriaz ohartu eta guztia jokatu aurretik etsi nuen."

TXARRENAK 'TRAGAPERRAK'

Nornahiren eskura daude noiznahi. Horrexegatik dira hain kaltegarriak. Gainera, gehienak legez kontrakoak dira, Haziendari diru asko ematen die, ordea.

ARAZOA DUTENEI DEIA

Terapia bilerak asteartean 19:00etatik 21:00etara.

Bilera informatiboak ostegun eta ostiraletan 18:00etatik 20:00etara. Laguntza 'debaldekoa' da.

☎ 943 557854 eta 943 331103

45 langile hernaniarrek lortu dute gorreriagaitik kalte-ordaina

Japon da herririk zaratatsuena; eta gero gurea.



Hauek ere ba omen dute beren partea.

GURE lan baldintza eta inguruneak eraginda, gero eta gorreria kasu gehiago ageri dira. Estatu osoko erdiak Gipuzkoan atzeman ziren iaz.

bazi ditugu". Kalte-ordainak ez omen dira izugarriak, baina, "enpresetan erremedioak eskatzen hasteko balio lezake".

NORBERA OHARTU EZ

Haundia badirudi ere, zailena gorrieriaz norbera jabetzea da. Prozesua oso poliki hasten da, eta konturatzerako entzumena nahiko galdua egon daiteke.

KALTE-ORDAINAK NEKEZ

CCOOko Jexux Uzkudunen hitzetan, lan haundia egin da arazoaz jendea ohartu eta indemnitzazioak eskuratzeko. "Gizarte Segurantzak ez ditu kasu asko onartu nahi izan; baina, epaitegietan denak ira-



Jexux Uzkudun

Euskadiko CCOO. Lan Osasun eta Ingurugiro idazkaria

"Gorreriarena lehen urratsa da. Orain, lanak eragindako beste gaitz eta lesioak (minbizia dela, estresa dela...) aitortzea nahi dugu"

Goiz parte beroa gaur Molotoff irratan

IGOR Kalzada (Musikaria), bertso munduko Joxerra Gartzia, Patxi (AHTren aurkako koordinakundekoa) eta Haikako Jon elkarriketatuko dituzte. Egunero bezala UEUrekin konexioa eta ostiraleroko AEK-koen 'esketxa' ere entzungai izango dira.

Hondartzara joateko gogo edo aukerarik ez duenak badaki zer egin: galtza mo-

tzak jantzi eta Molotoff irrati-ko udako programazioaz freskatu. Gaur 11:00etatik 13:00etara FM 99.2an. ☐

SENDATZEKO LAU PAUSOAK

■ JOKATZEARI UTZI.

Gogoz kontra jokatzeko ari den jokalaria, bizia jasangaitza gertatuko zaionez, zuloatik ateratzeko eta "gaitza" sendatzeko gogo behar du.

■ BERRIRO BIZI.

Barruko hutsunea beteko dion zerbait aurkitu behar du jokalaria. Horretarako, jokari ohien bizipenak entzun eta guztia gainditu deza keela sinistu behar du. Ondoren, nork bere bizitzaren inbentarioa egin behar du.

■ AUTOESTIMA BERRESKURATU

Min egin dien personei erreparatu behar die, errua berea dela onartu. Kontuan izan behar du, bide zuzenean ematen duen pauso bakoitzeko, aukera berri bat eman lezake bizitzak.

■ BESTEEI LAGUNDU

Ostera ere, bizitzeko gogo piztuko zaio. Orduan, besteiei lagundu behar die zuloatik ateratzeko. Besteei laguntze hutsak ere satisfakzio haundia eman lezake.



TXEMA
TABERNA
Izpizua 19
HERNANI
Tel. 943 55 10 12



ETXE ONENAK, S.A.


**GARAJE ITXIAK
'OBLATOS'ETAN
SALGAI**

Informatu eta saldu:
☎ 943 33.22.37

MUSEO BERRIA HERNANIN

Dena prest Zabalgan 'Txillida-Leku' zabaltzeko

Hamazazpi urteko lana izan da: burdinezko eta granitozko 40 pieza haundi kanpoan, eta txikiagoak baserrian bertan. Hauxe omen zen Txillidaren ametsetako bat.



Hau dena eta gehiago da 'Txillida-Leku'. 'Pakeak' ez omen du preziorik!

EDUARDO Txillidak hama-seigarren mendeko *Zabalaga* baserri eroria hartu, eta bere ametsetako museo bihurtu du.

12.000 METROKO ARTELANA

Sartu, propio egina dirudien erreka baten gainetik, eta hura paradisua: jardinak, arbolak, burdinak, harriak... denek bat egiten dute han. Arteak ere leku politean alde ederrean ematen du!

NEURRI-NEURRIKO IZENA

Espazioa da Txillidaren lanaren ardatz nagusietako bat. Horrexegatik izena du *Txillida-*



Zabalgan baserria dotore berritua.

Leku, espazioa eta parajea biak biltzen dituelako.

AUDITORIOA, LIBURUTEGIA...

...Artxiboa eta dena izango ditu museo berriak. Txillidaren lana berta-bertatik ezagutu nahi duenak ez du Tindayaraino joan beharrik.

ZABALDU IRAILEAN
Asteartetik igandera 10:30etatik 14:00ak arte zabalik. ☐

OSTEGUNETAKO FERIA

Toldopeko haize freskoa garestiena

IBARRAKO landarezaleek apenas ekarritako guztia saldu zuten. Erositakoa itsas-ten ere ez zaio baten bati gutxi kosta behar!

JENDEA TAMAINAN

Giro ederra bai, baina, denerako, ordea! Erostun gutxiegitxo hasi Atsegindegi ertze-
tik eta Latxunbeko bueltarainoko puesto guztietarako.

"NO ME GUZTAN LAZ FOTOZ..."

Feriak jenero asko du, eta kolorea ere gutxi ez. Kronika saiatu da Algezirasetik beherakoak ere harrapatzen, baina, dena ezin, ba! ☐



Kontu beroegiak erosi giro hauetarako!

HITZ BITAN



Hau zomorro pila hau! Hernanitik ere autobusak gainezka atera ziren!

✓ ISTRIPUA

Atzo motozale batek adineko gizon bat harrapatu zuen Larramedikalean. Egurdiko hamabiak aldera, motozalea aparkalekuko sarrera parean behera zihoala, *danba!*, eta bidea pasatzen ari zen gizona jo. Gero ospa egin, gainera. Udaltzainek esan digutenez, gizona Gernikako jubilatua bat da; lagun bati ardo partitza edo laguntza etorrita. Buruan kolpe dezentea; hala ere, itxuraz behintzat ezer grabarik ez. Hala ere, anbulantziak eraman zuen. Moto jabea Oleretako omen da; baina, besteren batek zeramakien.

✓ HAIKA

Gaur da (eta ez atzo, Kronikan atera bezala) Amaiur prozesuaren barruan Euskal Herriaren egoerari buruzko eztabaida. Haikak euskal gazte sozialista eta independentista guztiei dei egiten die eztabaida hauetan parte har dezaten.

✓ ARRAUNA

Bihar bataiatzen dute amilibia berria: 'Elorrabi 1978', azkenean. Elorrabiko zubi inguruan bertan egurdiko 11etan. Ordaindu ere, erdia pasa ordaindua dago eta honez gero ez digute kenduko. Beste erdiarentzako "patroiren" bat edo beste balego...☐

AGENDA

❖ ERAKUSKETA

Lore lehorrak.

Txema tabernan.

INGURUAN

❖ ZIRKOA

Donostian, Amaran.



TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943333288
- ▶ DYA: 943464622
943 335533
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750



FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri, 11
☎ 943553582
- ▶ Gaez: Aizpuru
Latxunbe Berri, 11
☎ 943553582



MUEBLES HERNANI

Aukera-aukerako logelak:
modernoak, klasikoak, zubi formakoak
Apaingutako pinuz egindako altzariak: Logelak eta egongerak
Sarreretarako altzariak, altzari osagarriak
Horma-armairuakate irristagarriak, pertsiana formakoak
Espiludunak, kolore desberdinetakoak eta nahi den erara

Etor zaitez eta alderatu gure prezioak.

HERNANI ALTZARIAK
Gartzia Goldaraz 8 HERNANI